



URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA

## VI. Bertso paperen lehiaketa, martxoaren 22ra arte

Jadanik hasia dago Txotx garaia, eta hau aprobetxatuz, Bota Bertsoa! bertso paperen lehiaketa txikia antolatu du Dobera Euskara Elkarateak, eta parte hartzeko aukera martxoaren 22ra arte egongo da.

URUMEA BOTA BERTSOA!

Txotx garaia aprobetxatzeko asmotan, urtero, Bota Bertsoa! bertso paperen lehiaketa txikia antolatzen du Dobera Euskara Elkarateak, eta aurtengoa, VI. edizioa izango da, eta bertan parte hartzeko aukera, martxoaren 22ra arte egongo da.

Hainbat helburua ditu egitasmo honek, esaterako; sagardotegian giro euskalduna sortzea eta euskeraren erabileran eragitea. Bertsoaren eta sagardotegiaren arteko harreman estua berreskuratzea, eta noski «euskal kultura sustatu eta indartzea». Sagardotegiek, beren iritzia eman dute, eta oso

ondorio positiboak atera dira, «egitasmoari esker oso giro polita sortzen da sagardotegietan» adieraziz.

Egitasmo honetan parte hartzeko, lehenik, paperetan bertsoa idatzi behar da, nahi den neurri eta doinuaren ondoren izen abizenak eta telefonoa jarri. Eta azken pausua sagardotegietan dauden kutxatxoetan, idatzitako bertsoa sartzea da, edo dobera@dobera.eus helbide elektronikora bidali.

Kutxak, Hernani, Astigarraga eta Urnietako 22 bat sagardotegietan daude, eta matxoaren 22a izango da kutxetan bertsoa sartzeko azken eguna.

Bertso Eskolak erabakiko du



Aurtengo gaia: aurtun? iaz baino hobea.

bertso saridunak zein izango diren, eta betiko moduan, hainbat aspektu sarituko dira: bertsoak sakonena, umoretsuena, poetikoena... Saridunen artean, sagardogileek emandako opariak

banatuko dira. Eta aurtun ere, parte hartzaileen artean sariak banatu eta bertsoen emanaldia egingo da, apirilaren 3an. «Aurtuko urtean 130 bertsoetik gora, aurtun? iaz baino hobea». K

## Txotx garaiaren arazoak konpontzeko lantalde bat sortzea eskatu du Hernaniko PSE-EEK

Hernaniko PSE-EEK, EH Bilduren gobernu taldeari eskatzen dio udaletxe barruan lantalde bat sortzeko, «Txotx denboraldiaren ondorioak murrizteko neurriak bilatu eta aplikatzeko».

HERNANI PRENTSA OHARRA PSE-EE

PSE-EEKo Ricardo Crespo sozialistak dio «oso garrantzitsua da guztion artean lanean jartzea, astero jasan behar ditugun arazoak baliozko irtenbideak bilatzen dituen lantalde batean». Hori horrela, Hernaniko PSE-EEK, lantalde bat sortzea eskatu dio EH Bilduri, «txotxaren arazoak konpontzeko».

Txotxeko mahaiean, alderdi politikoak, bizilagunen elkarateak, merkatariak, sagardotegiak, udaltzainak eta abar

biltzen dira, «soilik denboraldiaren ekitaldiak antolatzeko». Hori dela eta, sozialistek aitortu dute, organo horrek jardueran jarraitu beharko lukeela. PSE-EEK dio, udalak azken urteetan lan egin duela eragozpenak eta segurtasun ezak konpontzeko, eta neurri «eraginkorrak» hartu dituela ere aipatu du, besteak beste, udaltzainak hurbiltzea, komun publikoak jartzea, sentsibilizazio-kanpainak egitea, zarata neurtzea, garbiketako eta segurtasuneko langileak gehitzea... Hala ere, «erreali-

tateak ordea, eskasak direla» gaineratu du talde sozialistak. Crespok dio, «gaintzen ari zaigun errealitate batekin kezkatuta dagoela, eta premia hartu behar direla neurri sendo eta zuzenak». Gaineratu du, eskuetatik joan daitekeela egoera. Izan ere, «Txotx denboraldiko hiru astebehera daramatzazkigu eta guztietan egoera zail eta arriskutsuak bizi izan dira, hala nola, borrokak, erasoak, atxilotketak eta abar», hauek guztiak sagardoarekin zerikusirik ez duela ere azpimarratu du Hernaniko sozialistak.

Hori guztia kontuan hartuta, bozeramaile sozialistak dio «Gobernu taldeari eskatu nahi dugu lantalde bat sor dezala egoera aztertzeko, guztien proposamenak bateratzeko eta, azkenik

adostutako irtenbideak emango dituen bizikidetzaren kontrako jarrerari, zikinkeria eta bandalismoaren eraginakortasunez».

Sozialistak, lantalde horretan aztertu beharko lirakeen neurri zerrenda batekin joango direla aurreratu du. Horien artean «kanpoko aholkularitza bat» proposatu, beste herri eta hirietako problematikak eta hartzen ari diren irtenbideak ezagutzen lagundu eta orientatzeko. Txotxera bezeroak ekartzeko dituzten autobusek Hernanin aparkatzeagatik tasa bat ordaintzea ere proposatu du, «hirigunean sartzea debekatzeko gain». Era beran, uste du garrantzitsua dela «Ertzaintzarekin duten akordioa aldatzea, eta udaltzainen kopurua handitzea» proposatzen du. K

## Apuntatzeko azken eguna, danborradan

ASTIGARRAGA INUDE ETA ARTZAIK

Astigar Dantza Taldeak, inude eta artzairen konpartsa antolatu du, igande honetarako, eta ikuskizun honen baitan danborrada joango da. Bertan izena emateko azken eguna gaur da eta izena emateko orria Ikatza tabernan egongo da eskuragai.

## Euskeraz jarduteko zita, gaur

ASTIGARRAGA GURASOLAGUN

Gurasolagunek, hitzordua jarri du gaur arratsaldeko 16:30etarako, eta bertaratzeko deia luzatu du. Doakoa da, eta adierazi dute berdin dela zein den euskera maila.

## Goiz Eguzkiko bilera, datorren asteartean

HERNANI GOIZ EGUZKI

Datorren astearterako, bilera bat antolatu dute Goiz Eguzkin, arratsaldeko 16:00etan izango da. Urteko bilera ohikoaz gain, zuzendaritza eta junta berriaren aurkezpena egingo da bertan.

## Erakusketa, gaurtik

HERNANI ERAKUSKETA

V. Patchwork erakusketa izango da ikusgai gaurtik hilaren 28ra bitartean. Astegunetan, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara bitartean ikusi daiteke, eta larunbatetan goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara, Biterin. Erakusketaren azken egunean, manta bat zozketatuko da.

## Gaur hitzordua, musean

HERNANI MUS TXAPELKETA

Gaurkoan, Ceci-Bitxo, Juan Luis-Koldo, Jesus-Iñigo, Bixente-Koldo, Joseba-Jonkar eta Mauri-Txanpi izango dira musean.

**OGI BERRI**  
OKINDEGIA  
GOZOTEGIA  
Kontxa etxeberria 2  
Astigarraga  
943 12 64 24

**Gerizpe**  
Kafetegia-Okindegia  
682 156 795  
Kale nagusia 5, Astigarraga

**TILIN & TOLON**  
BELAR DENDA  
TERAPIA NATURALAK  
KONTSULTAK  
943 55 56 94  
Txirrita, 10 - HERNANI

**Funeraria VASCONGADA**  
Zure eskura  
24h-ko zerbitzua  
943 376 980  
Orkolaga, 2-4  
943 55 79 01  
HERNANI  
www.funerariavascongada.com

**EGURALDIA**  
**GAUR** Garu fronte hotz batek eragingo digu eta aldaketa nabarmena izango da. Zerua estalita egongo da goizean goizetik eta euria egingo du. Orokorrean tenperatura jaitsi egingo da. **Min.10° / Max.12°**

**BIHAR** Bihar artetu eta argitzera egingo du. Hodei ugariekin hasiko dugu eguna eta ipar partean goizean zehar euri apur bat egin dezake. Tenperatura jaitsi egingo da. **Min.6° / Max.12°** (euskalmet)

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## EH Bilduk herriaren alde lan egitera gonbidatzen du EAJ

Behin eta berriz errepikatu du EH Bilduk, ez duela atez atekoa martxan jarriko, hala ere, azpimarratu du horretan berresten dela oraindik.

**ASTIGARRAGA** PRENTSA OHARRA

eskatzin dio EAJri.

EH Bilduk, argi adierazi dio EAJri; «gezurren bideari uko egin eta herriaren alde lan egitera gonbidatzen zaitut». Behin eta berriz errepikatu du EH Bilduk, ez duela atez atekoa martxan jarriko. «Hala ere, argi dago EAJri bost axola izan zaiola errealitatea, guztia bere neurriera asmatuz eta manipulazioari atek pare pare zabalduz» dio.

EH Bilduren ustez, EAJk zabalduko oharra erakusten du, ez dakiela Astigarragako zein Donostialdeko udalerrietako poligonoetan zein hondakin bilketa sistema dagoen, eta «EH Bildu eta udal gobernu erasotzeko asmoz, herritarrei ziria sartu nahi izan die, gezur hau zabalduz». Biak oso larriak direla ere adierazi du.

EH Bilduk dio, ez dela egia poligonoetan berriz atez atekoa martxan jarri nahi duenik. «Atez ateko zerbitzuak poligonoetan 20 urte daramatza funtzionamenduan, San Markoren eskutik». Hori horrela, EH Bilduk, zuzenketa publikoa egitea

**EH Bilduren helburuak**

Enpresek jasotzen duten zerbitzua hobetzea dute helburueta-ko bat, «kexa ugari daude San Markok eskaintzen duen zerbitzuekin eta udalak kudeaketa bere gain hartuta, zerbitzua hobetuko duela zalantzarik ez dago». Klima Aldaketa larrialdiari aurre egiteko neurrien baitan, bilketa selektiboaren datuak hobetzea ere helburu dute. «Bilketa gutxienez %10ean areagotzea litzateke eta Zaldibarreko zaborteak bezalakoak edo Zubietako erraustegia ahalik eta gutxien elikatzeke urratsak eman». Hirugarren helburua, esku pribatuetan dagoen zerbitzua plurifikatzea da, zerbitzu publikoak interes publikoaren alde lerrokatzeke eta hondakinen kudeaketa gutxi batzuen negozio gosetik libratzeko.

Hala ere, EH Bilduk argitu nahi du, poligonoen bilketaren gaia oraindik azterketa fasean dagoela eta txosten desberdinak aztertu ondoren, «udal osoko bilkurari egokituko zaio herria-

rentzat onena dena erabakitzeara».

**EH Bilduk, zuzenketa publikoa egitea eskatu dio EAJri, ez baita egia atez atekoari buruz esan dutena**

**Herriaren alde lanean hasteko eskaera, EAJri**

EH Bilduri ez dio EAJren jarre-  
rak harritu, hauteskundeetatik 7 hilabete pasa direnetik, «EAJk argi utzi du ez duela herri honentzat inongo proiekturik ezta lan egiteko gogorik ere». Eta gaineratu dute, proiekturik ezean, «gezurra eta manipulazioari heldu behar izan die, prentsan soilik bada ere, lekutxo bat lortzeko».

Horrez gain, 7 hilabete hauetan, EAJk egindako lana negargarri dela dio EH Bilduk, «hilabete hauetan ia ekarpenik ez du egin eta osoko bilkura eta batzordeetan oso parte hartze eskasa izan du». Beraz, pasibotasunetik ateratzeko deia egin du EH Bilduk, «gezuraren bideari uko egin eta herriaren alde behingoz lanean jartzeko» gonbitea luzaturik. **K**

## Odola emateko aukera, ostegunean

Ostegunean jarri dute zita Astigarragako odol emaileek, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara egongo da aukera.

**ASTIGARRAGA** ODOL EMAILEAK

Ostegunean, odola emateko aukera egongo da, Astigarragako ambulategian, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara bitartean. Antolatzaileek adierazi dute, odola emanez, bizi aukera eman daitekeela, behar duten horiei. «Zuretzat une bat besterik ez da, baina gaixo askorentzat bizia izan datieke. Odola emateak ez

du tragedia edo larrialdi egoerei lotuta egon behar, gure bizitzako ohiko ekintza izan beharko litzateke, egunero behar izaten baita odola, kasu batzuei aurre egiteko».

Hori horrela, Astigarragako Odol Emaileek, «ahalegin txiki bat egiteko» eskakizuna luzatu nahi izan dute, «odola eman dezazun animatu nahi zaitugu».

**Esker onak,**

**Elkartearen izenean**

Elkartek eskerrak eman ditu, «orain arteko emaile guztiei eskerrak, eta etorriko direnei, eta Astigarragako Udalarri, babesagatik». **K**

## Trabesiako eski ikastaroa, hilaren 29an

**HERNANI** ESKI IKASTAROA

Hilaren 29rako, eta martxoaren 1erako, eski ikastaroa antolatu du Hernaniko Mendiriz Mendik. Intersatuentzat, datorren astelehenean bilera egingo da, arratsaldeko 20:00etan, elkartean.

## 'Koaderno gorria'ri buruz, bihar

**HERNANI** LITERATURA

Bihar arratsaldeko 19:00etan, *Koaderno gorria* liburuari buruzko mintegia egingo da. Gidaria Kattalin Miner izango da eta espazioaren edukiera mugatua da.

**JASOTA BEZALA**

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Esker onak

Zoriontzekoa, otsailaren 11n Kronikan publikatutako Hugo Colindresen Jasota Bezala, goraipatu beharrekoa dela iruditzen zait. 2006ko urtean, Txotx baxuago baten eskaerari buruz jarduten da bertan, bizilagunek alkateari egindako eskakizun batean, hain zuzen.

Hurrengo urtean, hau da 2007an, bizilagunon eta herritarren bizikidetzaren hobetzeko udal ordenantzak ezarri ziren, hauek herriko ordena jartzeko erraminta gisa. Eta otsailaren 11ko Jasota Bezala hartan, aipatzen da udalak ezarritako lehen-

tasunak, oso ezberdinak direla bizilagunon lehentasunekin alderatzen badira, eta horrekin era bat ados nago. Eta gainera, azpimarratzen dut, lehentasun horiek aldatu egin behar direla, eta hortik arazoak konpontzen hasi. Txotx garaia, Hernanirekin kulturarekin lotu daiteke, baina ezin da orain artekoa jasan, ezin du inork justifikatu bizilagunok asteburu bizitzaren dugun desorden hau.

Beraz, eskerrik asko zure idaztiagatik Hugo. Zorionak.

**Ion Azpiazu**

## IRAGARKI MERKEAK

**LOGIKALINE enpresak HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingeleza eskatzen dira. Lana luzerako da. **Bidali c.v. [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) edo deitu 943 31 86 06.**

**LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingeleza eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) edo deitu 943 31 86 06.**

**Martxan dagoen okindegia alokagai. Interesatuak deitu: 644 319 054**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Hernaniko Musika Bandako hainbat kide, atzoko Inauteriak iragartzeko kontzertuan.

## Inauteriak iragartzeko kontzertua eskaini zuten atzo

**HERNANI** MUSIKA BANDA

Atzo eguerdian, Hernaniko Musika Bandak, plazako arkupea bete zuten, Inauteriak iragartzeko kontzertua eskai-

niz. Hernanin ezagunak diren hainbat abestiz osatu zuten errepertorioa, hala nola, Diana, Galtzaundi, Pastelero, Isabelita, Praskuarena... Hamaika abesti

jo zituzten Musika Bandakoek entzuleen gozamenerako. Urtero moduan, umore onez bete zuten plazako arkupea, Inauteriak laister direla iragarri.